

## ERAKUNDEAREN DATUAK

|  |   |
|--|---|
| <b>1. Erakundearen izena:</b>  | MATZ ERREKA SDAD COOP LMTDA   |
| <b>2. Sektorea:</b>  | Industria. Osagaiak.  |
| <b>3. Langile kopurua:</b>   | 210 (Antzuolan eta Bergaran)  |
| <b>4. Webgunea:</b>  | <a href="http://www.erreka.com">www.erreka.com</a>  |
| <b>5. Erakundearen jardueraren deskribapena:</b><br>(produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...): | <p>ERREKAK lau negozio ditu: Finkapena, Plastikogintza, Sarbideak eta Adom.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Finkapena: maila handiko finkapena, fidagarritasuna eta segurtasuna. Lotura kritikoetarako monitorizazio sistemak.</li><li>• Plastikogintza: plastikozko pieza teknikoen garapen eta ekoizpenarekin lotutako soluzioak.</li><li>• Sarbideak: sarrerak automatizatzeko sistemak diseinatu, fabrikatu eta instalatzea. Sarbideak kudeatzea eta kontrolatzea.</li><li>• Adom: ingurune pribatu zein publikoko espazioak egokitzen ditugu, irisgarri bihurtzeko. Mugikortasun eta ongizate soluzioak.</li></ul> <p>Antzuolan eta Bergaran ditu egoitzak eta baita Mexikon, Txekiar errepublikan eta Txinan ere, guztira 504 langile daudelarik.</p> <p>ERREKAren merkatua mundu osora zabaltzen da, 50 herrialde baino gehiagotara iristen delarik. Bezeroen artean daude esaterako Carrefour, Siemens, Bosch eta Osakidetza.</p> |

## Harremanetarako datuak

|                                     |  |
|-------------------------------------|--|
| <b>Solaskidearen izen-abizenak:</b> | Oihana Irusta  |
| <b>Helbide elektronikoa:</b>        | <a href="mailto:oirusta@erreka.com">oirusta@erreka.com</a> |
| <b>Telefonoa:</b>                   |  |


## PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

|  |   |
|--|---|
| <b>1. Praktika onaren titulua:</b>   | Euskararen Plan Estrategikoa. Modu parte hartzailean eginda eta Errekaren kudeaketa sisteman txertatuta   |
| <b>2. Praktika onaren azalpena:</b><br><br>Zer da? Zertan datza?<br><br>Nondik dator?<br><br>Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak? | <p>2020ko udazkenean, <b>Euskararen Plan Estrategikoa diseinatzeko prozesua egin zen; bertan, organoetako ordezkariet gain, Errekaren zuzendaritza osoak parte hartu</b> zuen. <b>Helburua</b> izan da, <b>Euskara planaren gidaritza erakundeko lidergo exekutiboak hartzea</b>, Plan Estrategikoaren diseinutik hasita.</p> <p>Onurei dagokienez, honakoak:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Plan estrategikoa egiterakoan erakundearen ikuspegi orokorrarekin egin da; helburuak erakundearen eta erakundea (euskara plana barne) gidatu behar duten arduradunen errealitatera egokitu dira.</li><li>- Plana egiten zuzendariet eta organoetako ordezkariet parte hartu dutenez, hasieratik bereganatu dituzte erronkak, beraiek zehaztu dituzte eta. (Horrela egin ezean, Plan estrategikoa bukatu ostean lanketa sakona egin beharko litzateke PE komunikatzeko eta organoek bere egiteko)</li></ul> <p>Errekak midenet izeneko kudeaketa sistema erabiltzen du erakundearen barne kudeaketarako; bertan txertatzen dira Errekaren Plan Estrategiko orokorra eta Gestio Plana eta bere bidez egiten da horien jarraipena ere. Euskararen Plan Estrategikoa ere mideneten txertatu da. Horrela, Euskara arloko helburuak Errekaren sisteman daude, helburu bakoitzari dagozkion estrategiak eta ekintzak definituta, eta ekintza bakoitzari dagozkion arduradunak eta adierazleak zehaztuta.</p> <p>Helburua da, euskara erakundearen gainerako gaiak kudeatzen diren modu berean, sistema bera erabiliz kudeatzea, ez izatea aparte kudeatzeko gaia. Era horretara, arduradunei erraztu egin nahi zaie euskara kudeatzea eta aldi berean euskara arloko helburuei dagokien garrantzia eman zaie.</p> <p>Euskararen plan estrategikoan azaltzen den bigarren erantzunari erantzuten dio praktika horrek.</p> |

# PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

Plan Estrategikoaren diseinua prozesu parte-hartzaile baten bidez egin da, eta abiapuntuko eskema honakoa izan da:



**OINARRIAK:**

\* **Lidergoa partekatuko** dugu: euskararekiko **konpromisoa** kooperatibako arduradun eta organo guztiek babestu eta onartutako erabakia izango da.

\* **Erantzukidetasunean** oinarrituko gara.

\* Euskara planean egiten dena **komunikatuko** dugu, eta **parte hartzeko** aukera kooperatibako langile guztiengana zabalduko dugu.

**Misioa:**

**Euskal Herrian Matz-Errekaren harremanetarako hizkuntza nagusia euskara izatea eta euskal identitatea sendotzea.**

**4 ERRONKA, 10 ESTRATEGIA**

**1. ERABILERA INDARTZEA**

1.1 Ulermen maila areagotuz (langileak euskara ulertzea iristea bultzatuz)

1.2 Euskal hiztunen artean leialtasuna handituz

1.3 Euskararekiko sentsibilizazioa eta motibazioa landuz

1.4 Euskaraz sortuz

**2. EUSKARA ERREKAREN KUDEAKETA SISTEMAN TXERTATZEA**

2.1 Euskara planeko helburuak prozesuetan txertatuz

2.2 Hizkuntza politikari jarraipena eginez

**3. PARTE-HARTZEA INDARTZEA**


3.1. Euskara planean parte hartzeko aukera Erreka osora zabalduz

**4. ERREKAREN MARKAN ETA IDENTITATEAN EUSKARAREN BALIOA INTEGRATZEA**

4.1 Langile norbanakoen konpromisoa landuz

4.2 Erakundearekin konpromisoa landuz

4.3 Errekaren markan eta komunikazioan euskalduntasunaren marka txertatuz



**midenet**

Midenet aplikazioan Euskararen plan estrategikoa sartuta dago, eta arduradun bakoitzaren aginte panelean dagozkion helburuak eta egitekoak ere sartuta daude.

Midenet aplikazioan sartzerakoan, honako pantaila nagusia azaltzen da:

Egoera Adierazleak Dokumentazioa



Xehetasunak ikusi

